

# 1. UNITATEA: LURRA IRUDIKATZEA. MAPAK

## 1. KOORDENATU GEOGRAFIKOAK

- Puntu batek Lurreko gainazalean duen posizioa zehazteko erabiltzen den **kokapen sistema**.
- Lauki-sare antzeko sistema baten bidez irudikatzen da, mundu boletan eta mapetan ageri diren irudizko lerroak.

### a) Paraleloak:

- Lurra inguratzen duten irudizko lerroak, Ekuatorearekiko paraleloak.
- Ekuatorea  $0^\circ$  paraleloa da. Lurra bi zatitan banatzen du: Ipar Hemisferioa eta Hego Hemisferioa.
- Beste paralelo aipagarriak: Kantzer tropikoa, Kaprikornio tropikoa, Zirkulu Polar Artikoa eta Zirkulu Polar Antartikoa.

### b) Meridianoak:

- Polo geografikoetatik igarotzen diren irudizko lerroak.
  - Greenwich meridianoa  $0^\circ$  meridianoa da. Lurra bi zatitan banatzen du: ekialdea eta mendebaldea.
  - Meridianoak Lurraren ordu eremuak ezagutzeko ere erabiltzen ditugu.
- Lurreko toki bat zehatz-mehatz kokatzeko, **koordenatu geografikoak** bilatu behar ditugu:

### a) Latitudea:

- Lurreko edozein puntutik Ekuatorera dagoen distantzia.
- Iparraldekoa edo Hegoaldekoa izan daiteke.
- Gradutan neurtzen da.

### b) Longitudea:

- Lurreko edozein puntutik Greenwich meridianora dagoen distantzia.
- Ekialdekoa edo mendebaldekoa izan daiteke.
- Gradutan neurtzen da.


## 2. LURRA IRUDIKATZEA

### 2.1. MAPAK ETA PROIEKZIOAK

- **Mapak:** Lurraren edo Lurraren zati baten azalera osoaren irudikapen lauak.
- **Kartografia:** Mapa geografikoak egiteaz arduratzen den zientzia.
- Azalera esferikoa azalera lauan zehatz-mehatz proiektatzea ezinezkoa denez, **proiektzio sistemak** erabiltzen ditugu: proiektzio zilindrikoa, proiektzio konikoa eta proiektzio laua edo azimutala.

- **Mercator-en** eta **Peters-en** proiektzioak:
  - a) Mercator-en proiektzioan kontinenteen formak ongi islatuak daude; tamainak, berriz, ez. Proiektzio sistema honi **konformea** deritzo.
  - b) Peters-en proiektzioan kontinenteen tamainak ongi islatuak daude; formak, aldiz, ez. Proiektzio sistema honi **baliokidea** deritzo. Europaren irudia ez dago zentratua eta iparraldea eta hegoaldea orekatuagoak daude.

## 2.2. MAPETAKO ESKALA

- **Eskalak** adierazten digu zenbatekoa den lurralde batek errealitatean daukan tamainaren eta mapan daukan tamainaren arteko proportzioa.
- Mapetan, bi modutan adierazten da eskala:
  - a) **Zenbakizko eskala** zatiki bidez azaltzen da.  
Adib.: 1:100000  Maparen zentimetro bat 100000 zentimetro dira errealitatean (1 km).
  - b) **Eskala grafikoa** zuzenki berdinetan banatutako zuzena da (normalean 1 zm-ekoak). Zifrek adierazten dute zuzenkien tamaina erreal.

## 2.3. MAPA MOTAK

Mapek ematen duten informazioaren arabera, hiru mapa mota bereizten dituzte geografoek:

- a) **Mapa fisikoak** lurralde bateko erliebea eta urak grafikoki adierazten dituzte. Datu zehatzak ematen badituzte (puntu bakoitzean lurra duen altuera; herrien, ibaien eta bideen izenak...), **mapa topografikoak** esaten zaie.
- b) **Mapa politikoak** lurraldeen muga politikoak eta administratiboak biltzen dituzte (estatuak, probintziak, udalerriak...).
- c) **Gaikako mapak** gai jakin batzuei buruzko informazioa ematen dute, eremu jakin batean gai horretako datuak zein diren jakiteko. Motak: klimatikoak, baliabide ekonomikoak buruzkoak, biztanleriari buruzkoak, eta abar.

## 2.4. MAPAKO ELEMENTUAK

Mapa hainbat elementu osatzen dute. Garrantzitsuenak:

- **Izenburuak** informatu egiten du: gaia, grafikoki adierazitako lurraldea...
- **Legenda:** datuak grafikoki adierazteko erabiltzen diren sinboloak biltzen ditu.

- **Eskala:** grafikoki adierazitako lurraldea zenbat aldiz txikitu den adierazten du.
- **Paraleloak** eta **meridianoak:** lekuak zehaztasunez aurkitzeko dira.
- Mapa gehienetan, leku-izenak eta beste zenbait informazio ematen dituzten testuak ageri dira.